

ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

IKUSKARITZA ZERBITZUAREN TXOSTENA-ZIGORRA 2013


2014ko urtarrila

Azterlan, Plangintza eta Aurrekontuen Zerbitzua
Azterlan, Plangintza eta Aurrekontuen Zerbitzua

Donostia kalea 1, – Tel. 945 01 98 71 – Faxe 945 01 98 55 – 01010 Vitoria-Gasteiz



1



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

DOKUMENTUAREN XEDEA

2004 urtean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila zenak ofizialki 2009an eratu zen Etxebizitza Babestuen Ikuskaritza-zerbitzua martxan jartzeko oinarriak ezarri zituen, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko prozesuan iruzurra jazartzeko eta, ondorioz, etxebizitza babestuen parkearen funtzio soziala bermatzeko.

Txosten honen helburua aipatutako zerbitzuaren funtzionamendua labur-labur azaltzea da, orain arteko ikuskaritza-jarduerak eta egindako lanetik atera beharreko ondorioak adierazita.

ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK ETA FUNTZIONAMENDUA


Esan bezala, **Ikuskaritza-zerbitzua, formalki, 2009an eratu zen**, ordezkaritzen bidez lurraldeka antolatua, nahiz eta 2004az geroztik jarduten hasia izan. Garai hartan, ikuskaritza-funtzioa kanpo-enpresa baten esku zegoen, Sailarekin koordinatuta oso, hori bai. Etxebizitza Sailburuordetza arduratzen zen ikuskaritzen instrukzioaz, are abiarazi zitezkeen zigor-prozedurak izapidetzeaz ere.

Hasieratik, ikuskaritza-jarduerak **gehienbat ofizioz** egiten ziren, Sailburuordetzak ikuskatu beharreko eraikin-sortak aldian behin kanpo-enpresari zehaztu ondoren. Gerora, 2009tik aurrera, Ikuskaritza-zerbitzuak zuzenean Sailaren informazio-sistemetatik ateratako datuak erabiltzen ziren.

Hala ere, **alde batek eskatuta edo salaketa dela medio esku hartzeko marjina** utzi da. Eskakizuna edo salaketa egiteko, Sailburuordetzak martxan jarritako herritarren arretarako kanaletara jo behar da (Zuzenean, sare sozialak, telefono-deiak, Etxebideren kontsulta-elektronikorako kanala, etab.).


Ikuskaritza-funtzioa, batez ere, landa-lan trinkoan datza; etxebizitzak bisitatzea eta beroietan bizi direnak kontrolatzea, hainbat bide erabilita, bai presentziala, bai telefono bidezkoa, bai auzoak kontsultatuta, etab. Lortutako informazioak eta egindako izapideen ondoriozkoak (ur- eta elektrizitate-kontsumoak, errolda-datuak, etab.) Ikuskaritza-akta egitea ahalbidetzen dute, eta ikuskatzaileak kasu bakoitza kalifikatu egiten du, susmagarriak arau-hausteren bat egin duen zehaztuz, edo bestela, dena zuzen badago, artxibatu egin behar dela ondorioztatuz.

Zigor-prozedurak izapidetzea, hala badagokio, Sailburuordetzaren Zerbitzu Juridikoen ardurapeko eginbeharra da.




ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Sistema hori guztia Sailburuordetzaren beraren aplikazioen eta Jaurlaritzaren diru-sarrerak (zigorrak) kudeatzeko aplikazio korporatiboen elkarreragina bideratzen duen informazio-sistema batean oinarrituta dago.




EMAITZEN HURBILKETA

2004 urtetik hona, **83.418 ikuskaritza-bisitaldi egin dira, guztira, 63.015 etxebizitza ikuskatuz**. Datuak ez datoz bat, etxebizitza bera behin baino gehiagotan bisitatu daitekeelako aldiaren behin kudeatzen diren ikuskaritza-txandatan edo -sortatan, balizko iruzur-egoerak ekiditeko:




**ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA**



Hala, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitzaren parkea ia erabat ikuskatu da, eta % 10 besterik ez da falta, lurralde historikotik lurralde historikorako aldeak gorabehera:

Lurraldea	Babes publikoko etxebizitzaren erregimena*	Bisitatutako etxebizitzak	Diferentzia
Araba	23.986	18.647	5.339
Bizkaia	24.995	24.833	162
Gipuzkoa	21.315	19.535	1.780
GUZTIRA	70.296	63.015	7.281


Egindako ikuskaritza guztietatik (83.418) 83.153 ofizioz kudeatu dira. Gainerakoak (265), hirugarrenek salatuta. Halaber, egindako ikuskaritza guztietatik 10.257 baizik ez dira irregular gisa sailkatu, Zerbitzu Juridikoek etxebizitzari dagokien zigor-espedientea irekitzea ekarriz; hau da, egindako ikuskaritza guztietatik % 12.



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

2013 ekitaldian, 8.915 ikuskaritza-fitxa bete dira, 4.670 etxebizitza bisitatuta. Hautemandako kasu irregularrak 943 izan dira.

Bestalde, Ikuskaritza-zerbitzuak ateratako ondorioen bidez, guztiak ere aktetan adierazita daudenak, beharrezko zigor-espedienteak ireki dira, Lurralde Ordezkaritzen Zerbitzu Juridikoek kudeatu ditzaten. Gaur arte, hauek dira emaitzak:




Ikus daitekeenaren arabera, ikuskaritza-kopurua handia izan arren, **zigorra ezarri den espediente-kopurua 953 izan da**, egindako ikuskaritza guztietatik % 1,14 eta bisitatutako etxebizitza guztietatik % 1,51; hau da, Ikuskaritza-zerbitzuak hasieran hautemandako egoera irregularretatik % 9,3. 2013 ekitaldian, hautemandako 943 egoera irregularretatik 21ean baino ez da zigorra ezarri.

Historikoki, hiru dira arrazoiak espediente bati zigorra ezartzeko:

1. Etxebizitza okupatu gabe egoteagatik (953 kasuetatik 415 kasu).
2. Jarraian etxebizitzan ez egoteagatik eta ezin kontaktatzeagatik (243 kasu).
3. Alokairu ez baimendua aurkitzeagatik (202 kasu).

2013an, guztiz errepikatzen da aurreko graduazioa: 12 kasu etxebizitza ez okupatzeagatik, 6 kasu etxebizitzan ez egoteagatik eta 3 kasu baimenik gabe alokatzeagatik.



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA


Gaur arte, ezarritako zigorren eta isun hertsagarrien zenbatekoa 2.211.366 eurokoa da; hau da, batez bestean 2.320,43 euro zigor-espediente bakoitzagatik.

Zigorrak, lurraldeka:

Territorio	€
Alava	786.099 €
Bizkaia	779.136 €
Gipuzkoa	646.131 €


2013an, ezarritako zigorren eta zenbatekoa 49.656,04 eurokoa da; hau da, batez bestean 2.364,57 euro zigor-espediente bakoitzagatik.

Lurralde historikoen arabera, 2013ko ikuskaritza-datuetan, nabarmentzen da Araba: etxebizitzetan egindako 740 bisitetatik espediente bat bera ere hasi gabe.




**ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA**


GIPUZKOA




ALAVA



BIZKAIA





ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

ONDORIOAK

Ikuskaritza-jarduera hasi zenetik bildutako datuei erreparatuta, honakoa ondorioztatu daiteke:

- Babes Ofizialeko Etxebizitzen Ikuskaritza-zerbitzua modu trinkoan eta jarraituan lan egiten duen zerbitzua da, **etxebizitza-parke publikoaren ikuskaritza etengabea** duelako xede, iruzur-egoerak saihesteko eta etxebizitzek eraiki zireneko gizarte-betekizuna betetzen dutela bermatzeko.
- Diru-bilketa baino gehiago **disuasio-funtzioa** duela xede azpimarratu behar da, are **didaktikoa** izatea edo babes ofizialeko etxebizitzen helburuari buruz herritarren **sentsibilizazioa** lortzea ere, azken urteetako lanaren emaitzek ez baitute iruzur-maila handirik agerian utzi. Ikuskaritza-zerbitzuak hasieran irregular gisa hautemandako egoera guztietatik % 9,3 baino ez dira zigortu; hau da, etxebizitza-parkeko % 1,51.
- Datu horien balizko interpretazio bat da honakoa: ikuskaritza dela medio, gizarteak Babes Ofizialeko Etxebizitzen funtzioaren kontzientzia hartzen duela eta ez duela iruzur-jokabiderik gauzatzen.
- Babes Ofizialeko Etxebizitzen Ikuskaritza-zerbitzua EAEko etxebizitza-parke babestuaren gaineko ikuskaritzaren lehen itzulua amaitzear da. Amaitutakoan, hainbat aldagairen arabera **berariazko ikuskaritza-planak** abiarazi ahalko dira. Horiek eta **etxebizitza-parke publikoaren ikuskaritza etengabea** bat eginik, ikuskaritza-funtzioak garrantzi handiagoa hartuko du gure eguneroko lanetan, iruzurraren gaineko kontrola are gehiago sendotuz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailak 4

Mario Yoldi

Azterlan, Plangintza eta Aurrekontu Zerbitzuaren arduraduna